
Gizarteratzea eta ETako presoak: horien egungo egoerari buruzko azterketa juridikoa eta etorkizuneko orientazioak

AMAIERAKO TXOSTENA



2014ko abendua

Proiektuaren koordinatzaileak

Joxerramon Bengoetxea irakaslea
Jon Mirena Landa irakaslea

Txostenaren egileak

Jon Mirena Landa irakaslea (koord.)
Juan Echano irakaslea
Xabier Etxebarria irakaslea
Enara Garro irakaslea

Kanpoko aholkulariak

Frieder Dünkel irakaslea
Johannes Feest irakaslea
Amane Gogorza irakaslea
José Manuel Gómez Benitez irakaslea
Heike Jung irakaslea
Tapio Lappi-Seppälä irakaslea
Elena Larrauri irakaslea
Liora Lazarus irakaslea
Sharon Shalev irakaslea

UPV-EHU
Deustuko Unibertsitatea
Mondragón Unibertsitatea

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

Aurkibidea

1. Hitzaurrea: dekalogoia eta lanketa-prozesua.	5
2. Giza eskubideen araberrako espetxe-politikarako dekalogoia, terrorismo-delituak dituzten ETAko presoeri dagokienez.	6
A blokea. Aurretiazko kasuak.	
2.1. Birgizarteratze indibidualizatuaren printzipioa, terrorismoa eta diskriminazioa.	
2.2. Zigorraren helburuak eta zigorraren gauzatzea epaia ezartzeko eta betearazteko fasean.	
B multzoa. Ondorioak.	
2.3. Urrutiratzea.	
2.4. Lehen graduan sailkatzea.	
2.5. Gehieneko eta gutxieneko zigor-betetzea: segurtasun-aldia.	
2.6. Erakundea uztea, lankidetzan aritzea eta hori egiaztatzea: erakundetik bereiztea.	
2.7. Erakundea uztea, lankidetzan eta hori ziurtatzea (ii): barkamena, indarkeria arbuiatzea eta erantzukizun zibila.	
2.8. Frantziako egoera.	
2.9. Biktimak.	
C Blokea. Laburpen gisa: amaierako proposamena.	
2.10. Erreforma, berrinterpretazioa eta amaierako gogoeta.	
Eranskinak.	14

1. Hitzaurrea: dekalogoia eta lanketa-prozesua

1.1. Txosten edo dekalogo hau Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateek (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak eta Mondragón Unibertsitateak) eta Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzak (2013-2016 aldirako Bakerako eta Bizikidetzarako plana) elkarrekin egindako ekimen baten **amaierako dokumentua** da. Erakunde horiek guztiek, lankidetzako hitzarmen baten bidez, ETako terrorismo-delituengatik preso dauden presoen egoerari buruzko azter-lan akademiko, tekniko eta juridikoa egin ahal izan da. Txosten honen helburua da, aipatutako presoekiko egungo espetxe-politikak zein puntutaraino egiten duen bat gai horretako nazioarteko eta eskualdeko (baitik bat, Europako eskualdeetako) estandarrekin aztertzea, baita zein puntutaraino dituen dudazko konstituzionaltasun edo ilegaltasun-elementuak ere. Txostenean, etorkizunerako proposamenak ere badaude.

1.2. **Metodologia eta aurrekariak.** Amaierako dokumentu hau urtebeteko lanaren ondoren lortu da eta dokumentu hori egiten, espetxe-zuzenbidean, terrorismoan eta giza eskubideetan adituak diren Europako hainbat herrialdeetako hogei bat irakasleek parte hartu dute, UVP/EHUKo Joxerramon Bengoetxea eta Jon Mirena Landa irakasleek koordinatuta. Laneko metodologia eta txostena garatzeko faseak jarraian laburbilduko ditugu.

Lehenik, zuzenbide penaleko eta espetxe-zuzenbideko adituen tokiko talde bat sortu zen (Euskal Herriko Unibertsitateko Jon Mirena Landa –koordinatzailea–, Deustuko Unibertsitateko Juan Echano irakaslea, Deustuko Unibertsitateko Xabier Etxebarria irakaslea eta Euskal Herriko Unibertsitateko Enara Garro irakaslea) eta talde horrek 2014ko martxoan lehenengo **aurretiazko txosten bat** aurkeztu zuen. Dokumentu horren (txosten honetako 1. eranskina dena) funtzioa da, espetxe-politikaren egungo egoerari eta politika horren aplikazio efektiboari buruzko informazioa egituratzea, laburbiltzea eta eguneratzea, nazioko eta nazioarteko adituei eskaintzeko. Hala, aditu horiek, bigarren fase batean, aurretiazko txosten hori oinarri eta abiapuntu gisa hartuko lukete beraien txostena egiteko.

2014ko irailaren 18an, **nazioarteko mintegi** bat egin zen (*Workshop on the Report concerning penitentiary policy applied to ETA prisoners by Spanish Authorities*, Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen egoitzan) adituek egindako txostenak eztabaidatzeko. Txosten horietan aurretiazko txostenean planteatutako galderei erantzuteko estilo bat dago. Bereziki, amaierako txosten honetan eranskinak (2, 3 eta 4) diren hiru dokumentu jaso ziren:

- *Comments on the Report on the current state of penitentiary law and its application to crimes of terrorism by ETA* izeneko dokumentu hau nazioarteko aditu hauek egin zuten: Alemaniako Greifswald Unibertsitateko Frieder Dünkler irakaslea, Finlandiako Helsinki Tapio Lappi-Seppälä irakaslea eta Erresuma Batuko Oxford Unibertsitateko Liora Lazarus irakaslea (2. eranskina);
- *Comentarios sobre el Informe Preliminar* izeneko dokumentua Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko José Manuel Gómez Benítez irakaslea egin zuen (3. eranskina);
- *Comentarios en relación con la situación penitenciaria de miembros de ETA. Perspectiva comparativa* izeneko dokumentua Frantziako Bordeleko Unibertsitateko Amane Gogorza irakaslea egin zuen (4. eranskina).

Mintegian, hala ere, Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko Elena Larrauri irakasleak aurretiazko txostenari egindako ahozko iruzkinak ere jaso ziren. Irakasle honek, hain zuzen, Oxford Unibertsitateko mintegia prestatzeko saio batean ere parte hartu zuen, Liora Lazarus eta Jon Mirena Landa irakasleekin batera. Era berean, Johannes Feest (Bremen Unibertsitatea), Heike Jung (Saarland Unibertsitatea), Sharon Shalev (Oxford Unibertsitatea), Gema Varona (Euskal Herriko Unibertsitatea) irakasleek eta Nekane San Miguel nahiz Alison Hogg juristek beraien ekarpenak eta iruzkinak egin zituzten mintegi horretan.

Azkenik, baina horrek ez du esan nahi garrantzi gutxiago duenik, Nicola Padfield irakasleak (Erresuma Batuko Cambridge Unibertsitatea) ere ekarpen baliotsuak egin zituen. Irakasle honek Jon Mirena Landa irakaslearekin aurretiazko txostena eztabaidatu zuen eta, ondoren, aurretiazko dokumenturako iruzkinak bidali zituen, 2014ko uztailan Cambridge Unibertsitateko Fitzwilliam Collegen egindako bilera batean. Nottingham Unibertsitatean Dirk Van Zyl Smit irakasleak 2014ko abuztuan antolatutako mintegi batean, Jon Mirena Landa irakasleak hitzaldi batean aurkeztu zuen aurretiazko dokumentua eta modu bizian eztabaidatu zen. Mintegi horretan, parte hartu eta ekarpen nabarmenak egin zituzten irakasle hauek guztiek: Erresuma Batuko Nottingham Unibertsitateko Catherine Appelston irakasleak, Gaztela-Mantxa Unibertsitateko Javier De León Villalba eta Beatriz López Lorca irakasleek eta Erresuma Batuko Nottingham Unibertsitateko Bill Dixon irakasleak.

1.3. Nazioarteko mintegiaren eta mintegiaren eztabaida-prozesu osagarriaren nahiz mintegia prestatzeko prozesu guztiaren xedea zen aditu guztien arteko puntu komunak identifikatzea, oinarritzko alderdi kritikoak islatuko dituen amaierako dokumentu bat lortu ahal izateko. Dekalogo honek, beraz, batez ere, prozesuan parte-hartzaileek egindako ekarpenak zein izan diren adierazten du, eta tokiko, nazioko eta nazioarteko aditu guztien alderdi komunen eta partekatuen laburpen bat da. Dekalogo honen helburua da, herritarren esku dokumentu bat jartzea, giza eskubideen nazioarteko zuzenbideko estandarrekiko egokituagoa dagoen espetxe-politika bat egin ahal izateko baliagarria izan dadin. Dekalogo edo amaierako txosten hau, edonola ere, lehenago egin den eztabaida-prozesu guztiaren eta txostenaren eranskinak diren dokumentuen baitan ulertu eta interpretatu behar da. Eranskin horiek, zalantzarik gabe, txostenaren edukia modu egokiagoan eta zabalagoan azaltzen eta zehazten laguntzen dute.

2. Giza eskubideen araberako espetxe-politikarako dekalogoak, terrorismo-delituak dituzten ETAko presoek dagokienez

Dekalogo honek hiru bloke eta hamar puntu ditu: aurretiazko bi kasu, printzipioak edo galdera orokorrak (A blokea); aurretik ezarritako printzipioetatik eratorritzen diren alderdi berezietan buruzko zazpi puntu zehatz (B blokea), ondorio gisa, eta azken laburpen bat proposamen eragile gisa (C blokea).

A blokea. Aurretiazko kasuak

2.1. BIRGIZARTERATZE INDIVIDUALIZATUAREN PRINTZIPIOA, TERRORISMOA ETADISKRIMINAZIOA

Espanian terrorismo-delituengatik preso dauden ETAko presoek espetxe-politika partikular eta berezia dute (gainerako presoek duten espetxe-politikaz bestelakoa dena), hauek dira espetxe-politika berezi horren ezaugarri nagusiak: komunikazioetan esku hartzea, normalean; penintsulako espetxe guztietan barrera sakabanatze-politika gauzatzea; irteteko baimenak ukatzea, oro har; presoak fitxategi zentralizatu batean sartzea (FIES); lehen graduan sailkatzea sistematikoki eta baldintza gehigarriak izatea (segurtasun-aldiaren atzerazintasuna –Zigor Kodeko 36.2 art., zigorrak egiazki betetzea– Zigor Kodeko 78. art. –erakundea uztea eta lankidetzan aritzea– ELOO 72.6 art.) hirugarren gradura pasatzeko eta/edo baldintzapeko askatasuna lortzeko eta espetxean zigorra betetzeko gehieneko mugak ezartzea (horiek legearen arabera, terrorismo-delituen kasuan edo erakunde kriminalen baitan egindako delituen kasuan eskatzen dira soilik). Halere, garrantzitsua da kasu bakoitzari aplikatu dakioken erregimen juridikoa ulertzeko hain-

bat kontu iragankor kontuan izatea, 1995. urtetik gaur egun arte erreforma legegile asko egin direlako. Espezifikotasun horietako batzuk ondorengo ekintza hauek guztiak egin dituzten presoeri ere aplikatzen zaizkie: beraiek egindako jarduera terroristarekiko autokritika egin dutenei, biktimei barkamena eskatu dienei (baita topaketa konponarazle pertsonaletan ere), erantzukizun zibila betetzen ari direnei eta talde terroristaren diziplina utzi dutenei («Nanclares bidea» izenekoan dagoen presoeren taldea).

(Terrorismoko) Delitu-mota kontuan hartzen duen espetxe-erregimen berezi hau aplikatzea, preso bakoitzaren ezaugarri personalak kontuan hartu beharrean eta, batzuetan, espetxe-erregimen horrek terrorismoko delituen hainbat modalitatearen arteko larritasunen alderik ere aintzat ez hartzea, hori politika orokor nahiz kolektibo bat aplikatzea da. Hori dela eta, espetxe-erregimena modu indibidualizatuan gauzatzeko beharra- ren aurka egiten du zuzenean.

Espetxe-betearazpenaren baldintzei dagokienez, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen alorrean areagotzen ari den adostasunak eta, batik bat, gaiari buruz Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak (2013ko Vinter kasua eta beste batzuk vs Erresuma Batua), birgizarteratze-printzipioa aplikatzea eskatzen dute eta horren ondorioek modu indibidualizatuan eragitea, preso bakoitzaren egoeraren arabera eta, zehazki, arriskugarritasun kriminalari dagokionez, presoak duen pronostikoaren arabera. Ildo horri jarraiki, 1979ko Espainiako Espetxeen Lege Organiko Orokorra (ELOO) indibidualizazio-sistema zientifikoa eskaintzen du (72. art.). Espainiako Konstituzioak oinarrizko giza eskubide batzuen etete indibidualizatua gaitzen du (55.2. art.), talde armatuen edo elementu terroristen jarduketari dagokionez, baina ikerketa-fasean soilik. Presoen kolektibo partikular bati erregimen desberdina ezartzen dion eta presoari oinarrizko eskubideak gehiago murrizten dizkion espetxe-politika batek ezingo luke aipatutako konstituzioko gaikuntzako presoaren aurkako interpretazio analogiko batean oinarritu. Baina, Espainiako Konstituzioko 55.2 artikulua araberako espetxe-politika antiterroristaren aldi baterako estaldura aintzat hartuko balitz ere, Konstituzio Auzitegiak berak (25/1981 KAE) eskubideen etete indibiduala konstituzioaren arabera bakarrik egin daitekeela interpretatzen du, jarduera terroristak «legitimazio-krisi» antzeko bat sortzen duela egiaztatzen denean eta jarduera terrorista horrek herritar gehienak beraien oinarrizko eskubideez modu librean eta baketsuan baliatzea arriskuan jartzen duenean. Ez da nahikoa, inola ere, helburu baliagarriak edo polizia-eraginkortasuneko helburuak titulu gaitzaile gisa aipatzea. Hiru urtetik gora su-eten iraunkorren daramatzan talde terrorista batekin eta bertako kideek su-eten iraunkorra betetzearekiko nahiz espetxe-legegintzaren obeditzearekiko egindako konpromiso-deklarazio batekin, badirudi jarduera kriminalak ez duela horrenbesteko gaurkotasunik, Auzitegi Gorenak erabakitako aurretiazko kasu gaitzaileak betetzen direla ziurtzat jotzeko.

Beraz, berariak (sakabanatzea eta lehenengo graduan sailkatzea sistematikoki) edo zuzenbidez (legegintza eta hori ad hoc aplikatzea preso-taldeei egindako delitu-motaren arabera) politika antiterrorista berezi eta salbuespeneko batek, espetxe-erregimenaren gaian, birgizarteratzearen printzipioak izan behar duen esanahia ulertzeari dagokionez, giza eskubideen alorrean areagotzen ari den adostasunaren aurka egiten du; horrez gain, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren eta Espainiako Konstituzioaren aurka egiten du eta, gainera, indibidualizazio zientifikoaren lege-ereduarekiko eta Espainiako Konstituzioko diskriminazio-debekuari buruzko eranskinarekiko (3. art.) kontraesanean dago nabarmenki, azken hori, Espetxeen Lege Organiko Orokorrean ere jasotzen da.

2.2. ZIGORRAREN HELBURUAK ETA ZIGORRAREN GAUZATZEA EPAIA EZARTZEKO ETA BETEARAZTEKO FASEAN

Birgizarteratze-printzipioa zigorraren helburuetako bat bezala onartzeaz harago, Europako espetxe-zuzenbidean areagotzen ari den adostasunean, zentzu hertsian, espetxean bete beharreko zigorra ezartzeko orduan kontuan izan behar diren helburuen banaketa bat jarri eta ezarri da, pixkanaka. Epaian ordainaren helburuak, prebentzio orokorreko helburuak eta prebentzio bereziko helburuak jasotzen dira, baina espetxean sartzeko unean, bizitza-erregimena modu legitimoan zehaztuko duen helburu bakarra birgizarteratze-helburua izango da. Birgizarteratze hori preso guztien giza eskubide baina eta Estatu sozialaren betebeharra. Estatu sozial horrek etorkizuneko delituak saiheste aldera, bere esku dauden ahaleginak egin behar ditu presioaren birgizarteratzea errazteko. Birgizarteratzeak eskaintza ez hertsatzailea izan behar du, birgizarteratze-prozesuak arrakasta badu, presoak etorkizunean bizitza arduratsua eta deliturik gabeta izan dezan (Europako Espetxe Araua 102.1 zk. eta ELOO 59.2 art.). Laburbilduz: kondenatuak espetxera bidaltzen dira zigor gisa, eta ez zigortuak izateko.

Helburuen desberdintasun garbi horretatik ondorioak atera daitezke, batez ere, espetxeko tratamendu-gradua bilakaera eta aurrerapena modu legitimoan zehatz dezaketen argudioak eta arrazoiak zein izan daitez-

keen aipatzen ari bagara. Arrazoi horiek, gutxieneko betetze-aldia nahitaezkatzat jotzen den kasuez harago, kontuan izan beharko dute birgizarteratze-printzipioa, baina, betiere, arriskugarritasun kriminal indibidualizatuaren pronostikoaren baitan, ordainari edo prebentzio orokorrari buruzko arrazoiak kontuan hartu beharrean. Bestela esanda, espetxeko bizitza-antolamendua eta bertako jarduerak birgizarteratze-prozesua errazteko eta gauzatzeko moduan diseinatu behar dira, ordainaren eta prebentzio orokorreko arrazoiak besterik ez diren horiek eskubide hori ezinezko bihur ez dezaten edo arrazoi horiek eskubide hori hainbesteraino blokeatu dezaketenen puntura irits ez daitezten, eskubide hori kimera bat izan ez dadin. Giza Eskubideen Europako Auzitegiko doktrinak, biziarteko zigorren edo zigor horren zigor baliokideen kasuetan, behintzat, birgizarteratze-printzipioak aurretiazko baldintzapeko askatasunaren aldi baterako (baina errealista den) aukeraren eskubide zehatza ekartzeaz gain, aukera hori dagokion berrikuspen judizialaren arabera egiaztatzea edo baztertzea ere badakar. Azken finean, balizko erdi-askatasuna edo baldintzapeko askatasuna gauzatu ahal izateko, dagokion berrikuspen judizialaren prozedura espezifiko baten lege-eskuragarritasuna eduki beharko du eta zor zaizkion prozedura-bermeak izan beharko ditu. Prozesu horretan, birgizarteratzearen pronostiko indibidualizatu egiaztatu beharko litzateke, graduan aurrera egitea oinarri bakarra dela aintzat hartuta. Ez luke balioko, dena den, estandar hori betetzeko exekutiboak barkamena eskatzeko aukera izatea soilik.

B multzoa. Ondorioak

2.3. URRUTIRATZEA

Terrorismo-delituengatik preso dauden ETAko presoak beraien bizilekuetatik eta familietatik sistematikoki urruntzeko politika kolektiboa (eta ez indibidualizatu) birgizarteratze-printzipioa urratzea da eta Europako gutxieneko arauen (17.1) aurkakoa da, baita ELOOko 12.1 artikulutik eratoritzen den espirituaren aurkakoa ere. Horrelako politika bat balizko segurtasun-arrazoietan justifikatzea, badirudi, funtsezko eran ahuldu dela, su-eten iraunkorrari buruzko deklarazioa egin ondoren.

Edonola ere, berariazko politika honekiko legezko estaldura espezifiko bat falta dela kontuan hartuta, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrina (Khodorkovsky eta Lebedev kasuak vs Errusia, 2013) premiazkogatzen jotzen da, arbitrariotasun-askatasuna erakutsi behar den alor honetan, administrazio-jarduketaren, kasuz kasuko, kontrol zorrotzagoa eta indibidualizatuagoa eskatu behar dela aintzat hartuta. Arbitrariotasun-kontrol horrek urruntzeen zergatien kopurua jaitsi behar du. Izan ere, zergati horiek inongo aldatetarik gabe, egoera berrikusi gabe, distantzia-gutxitze partzialik eta progresiborik gabe modu iraunkorren mantentzen dira, birgizarteratze-prozesuak aurrera egiten duen heinean. Urruntzeko neurriaren beharra eta proportzionaltasuna, bizilekuarekiko hurbiltasunaren eta balizko segurtasun-arrazoiaren arteko orekaren baitan aztertu beharko litzateke. Azterketa hori horrelako egitateen bidez egiaztatu beharko litzateke: su-eten iraunkorra modu indibidualean onartu duten erakunde ez-aktibo bateko kide gisa, preso horien kanpoko arriskugarritasun objektiboa jaitsi izana edo, espetxeko legegintza onartzen dutenez, barneko arriskugarritasuna jaitsi izana. Ezin da onartu egoera partikular bakoitza aintzat hartu gabe urruntzeko arrazoi orokor bat ematea edo era orokorrean argudioak ematea, ordainaren edo prebentzio orokorreko arrazoiak besterik ez diren horietan bakarrik oinarrituta. Bestela, urruntze-politika arbitrarioa eta diskriminatzailea izango litzateke.

2.4. LEHEN GRADUAN SAILKATZEA

Urrutiratze-kasuan bezala, ETAko presoak lehen graduan sailkatzen dituen politika kolektibo batek (indibidualizatu ez dena) ez du Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrinarekin bat egiten. Eskubideak murrizten dituen neurriaren (lehen graduaren) proportzionaltasun-printzipioaren eraginkortasunari kale egiten zaio eta horren eraginkortasuna blokeatu egiten da, neurria orokorra, kolektiboa edo estandarra denean, zeren ezin da aztertu aipatutako espetxeko erregimenak dakarren murrizketa legitimatu dezakeen kasu zehatzeko oreka-puntuaren egokitzapena. Beste behin ere, kasu bakoitzean birgizarteratzeko pronostiko indibidualizatuak (delitu-motaren orde) sailkapen-gradua zehazteko giltza izan beharko luke.

Edonola ere, gainera, berrikuspen efektiboko eta efikazeko mekanismo batek egon beharko luke. Mekanismo horrek graduan aurrera egitea ahalbidetu beharko luke presoaren bilakaeraren arabera. Lehen graduaren berrikuspena ezin daiteke erregimen irekiko sailkapenarekin nahastu: Erregimen irekia eskuratzeko baldintzek eta lehen graduan aurrera egingo den zehazteko baldintzek ezin dute berdina izan. Lehen graduan aurrera egiteko, segurtasuneko egoerak edo pertsonalitate bortitza arrisku txikiagoa duen edo bilakaera mesedegarria den hartuko da kontuan. Horregatik, etorkizuneko indarkeria baztertzea (borroka armatua uzteko konpromisoa) edo espetxeko legedia onartzea, gainerako presoengandik bereizteko beharra ahuldu daitekeela adierazten duten zantzu argiak dira.

Erakunde terroristaren «barne-diziplinarekiko sumisioagatik» lehen gradua hasieratik eta modu jarraituan (Espetxe Erregelamenduko 102.5 art.) ezin da aplikatu «talde terroristako kide ez diren» (lankidetzatza, apologia, etab.) delitu-kasuetan, zeren kasu horietan, pertsonak ez dira taldeko kide. Bestetik, ETako presoaren aldeko erakundeak ez dira delitu-erakundeak ezta talde armatuak ere eta, horregatik, interpretazio murriztaile eta preso bihurtzearen aldeko interpretazio bat ezartzen da, kasu horietan ez delako egiaztatutzat jotzen ere aipatutako «barne-diziplinarekiko sumisioa». Ezin da onartu «sumisioaren» irizpidea presoaren aurkako interpretazio hedagarri bat ezker abertzalea izeneko espektro guztian, lehen gradua hedatzeko oinarria izatea. Sumisioa, gainera, ezin da izan berehala lehen gradua aplikatzeko irizpide formal soil bat, baizik eta kasu zehatzean egiaztatu behar da segurtasun-arrazoik direla medio, ohiko erregimena aplikatzea ezinezkoa dela.

Erregimen itxia denboran zehar luzatzen den (urtetan) eta 20 orduko edo hortik gorako isolamendua dakarren eta jarduera komunik gabeko edo aurrera egitea ahalbidetzen duten programetan parte hartzeko aukerarik ez duten muturreko kasuetan, egoera tratu gizagabetzat edo umiliagarritzat jo daiteke Giza Eskubideen Aldeko Europar Konbentzioko 3. artikulua araberat. Ez litzateke ustekabekoa izango, lehen graduko gehiegizko luzapenak eta neurrigabekoak espetxeko egonaldiaren egunen zenbaketa bat ekartzea, «egun bateko bi» baldintzaren arabera zenbaketa, hain zuzen. Zigorren iraupena espetxe-onura konpentsatzaileen bidez laburtuko litzateke, erregimen horretan espetxean egoteak duen intentsitatea kontuan hartuta.

2.5. GEHIENEO ETA GUTXIENEO ZIGOR-BETETZEA: SEGURTASUN-ALDIA

Europako Kontseiluko zuzenbide konparatuan askatasunaz gabetzeko zigor baten aurreikuspena 30 urtera arte (delitu batekin) eta, batez ere, 40 urtera arte (delitu-pilaketa) zehaztea salbuespenekoa da, erabat. Egia da, hala ere, Espainiako Erreinuan ez dela biziarteko zigorra jasotzen, aitzitik, Europako legedi askotan dago. Dena den, Espainiako iraupen luzeko zigorrak modu efektiboan betetzeari buruzko azterketa zehatz bat eginez gero, bertako erregimena biziarteko zigorra betearazten den herrialdeetako bezain gorra edo gorragoa dela ondorioztatu daiteke. Eta baieztapen hori mantentzeko, funtsezkoa da espetxealdiaren iraupenaren gehieneko (inolakako kasutan zigorrak ez luke 30 urtetik gorakoa izan behar, hori baita erreferente nazioarteko zigor-kodean –Erromako estatutuko 77.1. artikulua–) formala aztertu beharrean, espetxealdien gutxieneko iraupena eta erdi-askatasuneko erregimenak eskuratzeko baldintzak aztertzea. Aztertu dezagun, oraingoz, lehenengoa.

Biziarteko zigoren kasuan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (Vinter kasua eta beste batzuk vs Erresuma Batua, 2013) zigor-betearazpenaren gutxieneko aldia 25 urtetik gorakoa izatea ezarri du, nahiz eta 15 urtetik gorako espetxe-zigor batek asko zailtzen duen –edo ezinezko bihurtzen duen– espetxeko birgizarteratze-prozesuaren antolamendu zentzuduna eta efektiboa gauzatzea.

Horregatik, espetxeko erregimena berrikusten uzten ez duen eta 32 edo 35 urteko «gutxieneko» aldi bat eta aldi efektibo bat (ZK-ko 76/78 art.) bete arte erdi-askatasuneko erregimenak eskuratzeko blokeatzen duen zigor-betearazpeneko sistema zorrotz bat kontraesanean dago birgizarteratze-printzipioarekin. Ordainaren eta prebentzioko helburu orokorrak larriagotzea da, eta, horrela, helburu horiek birgizarteratze-prozesua blokeatu eta ezeztatu egiten dute desagerrarazi arte.

Aipatutako muturreko kasuetatik harago (ZK-ko 76/78. art.), gehieneko eta gutxieneko espetxealdiek ordainaren eta prebentzioko orokorreko helburuak bete diren eta birgizarteratze-printzipioa lehenesten den (horri bakarrik protagonismoa ematea barne) igarotze-eremua markatu behar dute. Gutxieneko zigor-betearazpenak edo segurtasun-aldia gehiegi luzatzen badira, birgizarteratze-prozesua blokeatu egiten da eta ezinezko bihurtzen da.

Horregatik, espetxe-erregulazioak (gainerako presoekin izandako ildo berari jarraiki), gutxienez, segurtasun-aldi horiek itzultzeko aukera bat eman beharko luke. Izan ere, une honetan segurtasun-aldi horiek derri-gorrezkoak dira (aukerakoa izan beharrean), hain justu eta bereziki, terrorismoarekin (eta kriminalitate antolatuekin) zerikusia duten presoentzat. Individualizazio zientifikoaren sistemaren funtsak, kasu bakoitzean, birgizarteratzeko pronostikoa aldekoa bada, berrikuspen judizialak segurtasun-aldia ezeztatzeko aukera eman beharko luke. Horrek ZK-ko 36. artikulua eta ZK-ko 76/78 artikulua legegintzako aldaketa bat eskatuko luke (justizia trantsizionala eta ETaren behin betiko desagertze- eta desagite-prozesua gertatzen diren egoera baten barnean, hori presoaren alde atzerazinezko moduan aplikatzeko aukerarekin) edo, kasu denean, bestela, presoaren aldeko malgutasun-printzipioaren interpretazio hedagarri bat (EPko 100.2 art.) eskatuko luke. Edonola ere, iraupen luzeko askatasunaz gabetzeko zigoren kasuetan, zigorra betetzeko gutxieneko aldiek ez lukete 15 urtetik gora iraun behar, ordainaren eta prebentzio orokorreko arrazoien mendeak ez diren irizpideekin bat eginda.

Laburbilduz, hain luzeak eta zorrotzak (ez-itzulgarriak) diren segurtasun-aldiek birgizarteratze-prozesuei pizgarria kentzen diete eta, horiek desagertu baino lehen, egokitu eta malgutu egin behar dira, individualizazio-sistemak preso-mota honi eragiteko, birgizarteratzearekin eta diskriminazio ezaren printzipioarekin bat.

2.6. ERAKUNDEA UZTEA, LANKIDETZAN ARITZEA ETA HORI EGIAZTATZEA: ERAKUNDETIK BEREIZTEA

Segurtasun-aldietatik edo zigorrak betetzeko gutxieneko aldietatik harago, baldintza osagarri gisa, erakundea uzteko eta lankidetzan aritzeko baldintzak eskatzen dira. Baldintza horiei dagokienez, legeriak baldintza horiek egiaztatze balizko bideen zerrenda ireki bat identifikatzen du. Erakundetik bereizteari buruzko txosten teknikoak aipatuko ditugu lehenik.

Erakundetik bereizteari buruzko estandarra ezarri ahal izateko, erakundetik bereiztea zentzu zorrotzean eta desradikalizazioa bereiztea komeni da. Lehenengoak esan nahi du erakundetik bereiztea, indarkeriazko ekintzak ez egite aldera («portaera»); bigarrenak, berriz, harago jotzen du eta talde antolatuarekiko urrunetzea esan nahiko luke, gainera, pentsaerari buruzko aldaketa bat ere eskatuko luke («jarrera»).

Presoa erakundetik bereiztu dadila eskatzea, etorkizuneko delitu-jardueretatik bereizte aldera, erabat arrazoizkoa da eta birgizarteratzeren pronostiko individualizatuaren logikarekin bat egiten du. Hala ere, interpretazio batek jarreraren aldaketa bat exijitzeko muturrera arteko bereizketa eskatzen badu, interpretazio hori intrusiboa, hertsatzailea eta presoaren oinarritzko eskubideen (batez ere, kontzientzia eta ideologia askatasunaren eskubidearen) urratzailea izango litzateke. Zigor-zuzenbide demokratikoaren korrelatuak gertakariaren (egilearena izan beharrea) zigor-zuzenbide gisa, gizartean birgizarteratzeari dagokionez, era berean eragiten duen espetze-eredua izan behar du, eta eredu horrek presoak zigor-legearen kanpoko errespetua izatea ziurtatu behar du, barneko foroaren errespetua ziurtatu beharrea. Erakundetik ekintzetan oinarrituta bereizi behar da, jarreraren edo pentsaeretan oinarrituta egin beharrea. Horrelako bereizte batek arriskugarritasun kriminalaren gutxitze drastikoa edo desagertzea ekarri behar du, graduan aurrera egiteko benetako oinarria eta erreferentzia-oinarria izan dadin.

Horregatik, erakundetik bereizteak, azaldutako zentzu hertsian, legezko formulazioa aztertzen lagundu beharko du, kautela hauen arabera: presoa erakundetik bereiztea eskatu behar da, batez ere, zentzu juridiko-penalaren arabera, erakunde terroristak diren kasuan. Ondorioz, hortik kanpo dago ezker abertzalea izeneko espektro soziologiko eta ideologikoko beste edozein erakunde, baita, esaterako, presoaren aldeko kolektiboak edo presoaren aldeko erakundeak ere; «helburuei» buruzko legezko erreferentziak ezin du ekarri bereizte ideologikorik desradikalizazioaren baitan, baizik eta helburu nahiz bitarteko terroristen erakundearekiko bereizte gisa interpretatu behar da modu bereizi ezinean: hau da, ordena konstituzionaleko subertsio-politikoko helburuak lortzeko edo bake publikoaren aldaketa lortzeko indarkeria erabiltzen duen baliabide antolatuarekiko bereiztea.

Erakundetik bereizi dela egiaztatze, laburbilduz, etorkizunean indarkeriara ez jotzeko pronostiko sinesgarri bat baieztatu behar da. Presoa erakundetik edo erakundeetatik bereizten da, helburu politikoak lortzeko indarkeriara jotzeko borondate antolatuarekin loturak mozten dituzenean, ondorengo atzera-egite ideologikorik eskatu gabe edo giza eskubideen aurkako debekurik gabe.

Erakundetik bereiztea zentzu hertsian ulertuz gero, bestetik, nolabaiteko lankidetzatza da eta lankidetzatza horren ondorengo ibilbidea (agintariekin lankidetzatza zehatza izatea, «delazioa», gertakariari edo pertsonari buruzko informazio nabarmena jakinarazteko) ezin da eskatu espetsuan graduan aurrera egitea blokeatzen duen elementu gisa. Dena den, horrelako aparteko lankidetzatza batek sari-elementuak gaitzeko aukera eman beharko luke, horixe bera egiten da, lankidetzatza epaiko zigorra ezarri aurretik egiten bada (ZK-ko 579.4 art.).

2.7. ERAKUNDEA UZTEA, LANKIDETZA ETA HORI ZIURTATZEA (II): BARKAMENA, INDARKERIA ARBUJATZEA ETA ERANTZUKIZUN ZIBILA

Erakundea uzteak eta lankidetzak, formalki, erakundetik bereiztetik alderatzen diren bestelako ziurtatze-bideak dituzte: indarkeriazko jarduerak berariaz arbujiatzeko deklarazioa eta indarkeria alde batera uztea, batetik, eta delituko biktimei, espresuki, barkamena eskatzea, bestetik.

Indarkeria alde batera uztea: arbujiatzea. Horietatik lehenengoak zuzenean bat egiten du arriskugarritasun kriminalaren pronostikoarekin; betiere, horrelako deklarazio batek, sinesgarria suertatzen bada, pronostikoa birgizarteratze sozialaren aldeko beste pronostiko batekin ordeztzen badu, presoa etorkizuneko askatasu-

neko bizitzan delituez edo indarkeriaz ez baliatzeko. Muina da (etorkizuneko indarkeriari uko egitea) forma izan beharrean (berariazko deklarazioaren bidez) egiaztatu behar den gakoa, eta horra erakundetik bereizteko prozesu baten bidez irits daiteke.

Barkamena. Barkamena eskatzeak, aldiz, egindako mina onartzearekin zerikusi handiagoa du. Elementu hori subjektuak etorkizunean izango duen jarreraren aldaketa islatzen laguntzen du eta jarrera horretatik on-doriozta daiteke, indarkerian berriro erortzeko arriskua desagertu dela. Aldiz, badirudi ezin daitekeela onartu, barkamen-eskaera graduan aurrera egiteko *sine qua non* baldintza izateko interpretazioa. Halaber, ez da zilegi (intrusiboa delako eta presoaren oinarrizko eskubideen aurkakoa delako) damuaren exijentzia hertsatzailea edo jarrera- eta pentsaera-aldaketaren exijentziak birgizarteratzearen baliokide izatea. Barkamena modu naturalean eskatzeak, ezbairik gabe, balio positiboa izan dezake eta ezin zaio inola ere pizgarririk kendu. Guztiz kontrakoa: Barkamenak oinarri bezala balio dezake, ez soilik graduan aurrera egiteko, baita indultu partikularra emateko ere, baldintzen arabera. Baina, aitzitik, graduan aurrera egitea blokeatuko duen baldintza gisa barkamena ezartzea ez litzateke onargarria izango, ordainaren irizpideak edo prebentzio orokorreko irizpideak oinarritzat hartuta, birgizarteratze-prozesuan eragiten duelako.

Erantzukizun zibila. Kaltearen onarpena barkamena eskatzeko berariazko deklarazio horren bidez adieraz daiteke edo baita erantzukizun zibilak onartuta ere. Azken horiek, edonola ere, legearen (ELOOko 72.5 art.) baldintza orokor bat dira hirugarren gradua lortzeko. Barkamenaren kasuan bezala, bat-bateko onarpena eta erantzukizun zibilak betetzearen aldeko jarrera biktimarentzat alderdi positibo bat da. Eta horrek ez luke ekarri behar graduan aurrera egitea soilik, baita sari-elementuak ere, indultu partikularra barne, baldintzen arabera. Hala ere, erdi-askatasuneko erregimenak erantzukizun zibila bete arte eskuratu ahal izateko aukera blokeatzea, badirudi, birgizarteratze-printzipioaren aurkakoa dela eta, halaber, birgizarteratzea lehentasuneko helburua (ez, ordea, ordainketako edo prebentzio orokorreko helburuak) izateko beharraren aurka dago; izan ere, helburu hori bakarrik hartu behar da kontuan zigorra betetzen den fasean.

Erantzukizun zibilen kasuan, birgizarteratze-printzipioa blokeatzeko gaitasuna malgutuko duen legegintzako aldaketa bat egon beharko luke, nahiz eta epaitegien interpretazio malguak, nolabait, bere potentzial asaldatzailea gutxitzen erraztu duen. Legegintzako erreforma egin arte, beste behin ere, modu alternatiboan, EPko 100.2 artikuluko betearazpen-eredu malguaren interpretazio hedagarri batera jo daiteke.

2.8. FRANTZIAKO EGOERA

Frantziako espetxeetan ETArekin zerikusia duten ia ehun bat pertsona daude, baina horien egoerak, nahiz eta Espainiako espetxeko legegintza eta politikaren antzekotasun batzuk badituen, desberdintasun handiak ditu.

Alderdi komunen (eta kritikoen) artean, batetik, urrutiratze- eta sakabanatze-politika nabarmendu behar dira; izan ere, bi politika horiek Frantziako estatuak ere gauzatzen ditu. Eta gai horri dagokionez, hemen, giza eskubideen arabeko espetxe-politika bateko estandarrekiko bateraezintasuna eta, are gehiago, su-etenaren egoera berria aipatzen diren puntua aipatuzat jo daiteke.

Bigarrenik, interpretazioari dagokionez, zigorra betetzen den fasean birgizarteratze-printzipioari lehentasuna ematen zaion ez da hain argia suertatzen eta, batzuetan, zerga-eskema interpretatiboen terminoetan, interferentziak izaten dituela dirudi, esaterako, Espainiako estatuaren kasuan bezala, ordainketako eta prebentzio orokorreko irizpideak kontuan hartzen baitira.

Azkenik, segurtasuneko aldi luzeak egotea (18, 22 eta 30 urtera arteko zigorrak, biziarteko zigorren kasuan, baita segurtasun iraunkorreko aldiak ere kasu batzuetan¹), muturreko kasuetan ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrinarekin (2013ko Vinter kasua eta beste batzuk vs Erresuma Batua²) ez du bat egiten..

Espainiako araudiarekiko alde handiena da, hala ere, ez dagoela ETArekin zerikusia duten terrorismo-delituak dituzten presoak modu partikularrean edo berezian tratatzen dituen ad hoc espetxe-politikarik. Ezbairik gabe, politika antiterrorista berezi bat dago eta oinarrizko eremuan nahiz eremu prozesalean larriagotzen da

¹ Zenbait kasutan, segurtasuneko aldia zigorraren erdia edo 2/3 da (ikus Prozedura Penalaren Kodeko 132-23 art.); hala ere, biziarteko zigorra jartzen denean —polizia-funtzionario bat erailtzeagatik edo antolatutako banda batek egindako erailketarengatik, esaterako— segurtasun aldi hori iraunkorra izan daiteke. Ikus 4. eranskina, zehaztasun gehiago izateko.

² Hala ere, duela gutxi, Frantziaren aurkako 2014ko Bodein kasuari jarraiki, kondena jasotzen den unetik hasten da zenbatzen Vinter-en ezarritako 25 urteko muga; epe hori, beraz, luzeagoa izan daiteke, kontuan hartzen ez bada behin-behineko espetxealdia. Ikus 4. eranskina, zehaztasun gehiago izateko.

politika hori. Horrez gain, Parisen jurisdikzio espezializatu eta zentralizatuak ere badaude zigorrak aplikatzeari dagokionez (Prozedura Penalaren Kodeko 706-22-1 art. eta Prozedura Penalaren Kodeko D. 49-75 art.). Baina, azken kasu honetan, berezitasun prozesalek, indibidualizazio-neurriak eskuratzeari dagokionez, ez diete eragiten, *per se*, muineko baldintzei. Hori dela eta, birgizarteratze-prozesuan ia gainerako presoek aplikatzen zaizkien baldintza berdinak aplikatzen zaizkie; hala ere, funtsean, denbora pixka bat pasatzen da erdi-askatasuneko erregimenetarantz jo ahal izan baino lehen (normalean, zigorraren denboraren erdi aldera izan ohi da, biziarteko zigorrarekin lotutako segurtasunekoaldi batzuen salbuespenetan izan ezik); eta, horrez gain, legegintzaren ikuspuntutik, prozesu hori blokea dezaketen baldintza osagarriak dituen arriskugarritasun indibidualizatuaren pronostiko bat egiten da. Baldintza osagarri horiek, halakorik bada, blokeoko efektuak ekarri beharrean sari-efektuak ekartzen dituzte, alde horretatik, birgizarteratze-prozesua presoaren oinarrizko eskubideekiko bortxazko prozesu eta, beraz, prozesu intrusibo eta prozesu bateraezin bihurtzea saihesten da.

Azkenik, mugako alde bateko zein besteko ETako kideek egindako terrorismo-delituaren mugaz harandiko inplikaziotik eratorritako den gai bat aipatzea komeni da. Zigorrak edo prozesu judizialak bi herrialdeetan daudenean, orain arte, arau orokorra zen Espainiari Frantziari zigorrak beteta zituen preso bat entregatzen zitzaionean, betetako zigorrak ez zirela kontuan hartzen pilatze- eta mugatze-ondorioetarako, multide-linkuentziako kasuetan, baita gai horrekiko nahitaezko konexioa zegoenean ere [beste herrialde batzuetako zigorrak, esaterako, Tailandiako edo Andorrako zigorrak, Auzitegi Gorenak pilaketa onartu zuen]. Bestela esanda, Frantziari 2008ko uztailaren 24ko Kontseiluko 2008/675/JAI Erabakitze Esparruaren arabera ezarritako eta betetako zigorrak kontuan hartu beharrean, Espainian zigorrak ez zirela kontuan hartzea, zeren ez zen egin Erabakitze Esparru horren trasposizioerik. Espainiako Auzitegi Gorenak (martxoaren 13ko Auzitegi Gorenaren 186/2014 epaia) bazirudien egoera hori behin betiko argitu behar zuela, pilaketaren aldeko erabakia emanda, baina orain dela gutxi, azaroaren 12ko 7/2014 Lege Organikoak eta azaroaren 20ko 23/2014 Legeak aukera hori modu drastikoan mugatu dute eta, edozein kasutan, 2010eko abuztuaren 15a baino lehen Frantziari emandako zigorrak hortik kanpo gelditzen dira (7/2014 Lege Organikoko xedapen gehigarri bakarra; 23/2014 Legeko 86. art. eta lehenengo xedapen iragankorra). Horren guztiaren ondorioa da, zigorrak betetzeko gehieneko mugak (20, 25, 30 edo 40 urte) automatikoki gainditu direla eta gaindituko direla, zeren zigorrak betetzea, Espainiari presoaren entregatu baino lehen, aurretiaz, Frantziari betetako espetxe-urteei lotzen zaio, eta ez da urterik deskontatzen.

2.9. BIKTIMAK

Terrorismoko biktimek Europako (2012/29/EB zuzentaraua) eta estatuaren (Espainiaren kasuan estatus partikular eta indartua dute: 29/2011 Legea eta autonomia-arauekin osatzen dena; baita Prozedura Penalaren Kodeko araudi orokorrarekin ere, biktima guztientzat Frantziaren kasuan) araudiaren arabera eskubide asko onartu direla ikusi dute.

Zigorra betetzeko fasean, hala ere, biktimek eskubideak itxuratu eta orekatu egin behar dira, birgizarteratze-prozesuan ez eragiteko moduan. Fase horretan, delituko biktimei beharrezkoa den informazioa emateko eta aldi bateko askapen batek (aurretiazkoa izan ala ez izan) biktimak arriskuan ez jartzeko, beharrezkoak diren neurriak hartzeko inolako eragozpenik ez dago, guztiz kontrakoak. Baina, informazio-eskubideetatik eta segurtasun-kauteleetatik harago, biktimei ezin zaie eman birgizarteratze-prozesua blokeatzeko legezko gaitasunik.

Adierazitako ideia osatzeko, esan beharra dago, hala ere, espetxeko fasean, delitu-egileek biktimekiko edozein portaera eta/edo jarrera positibo eta adiskidetzeko-jarrera izatea sustatu behar dela. Modu materialean edo sinbolikoan adiskidetzeko programa orokorrak, konponarazte-justiziaren ildoko bitartekaritza edo esku-hartzeak barne, erantzukizun zibilak betetzea, baita barkamena eskatzea ere, erantzukizuna berariaz onartzea, egindako kaltearengatik damutzea eta autokritika egitea (betiere, horien bortxazko iazara bermatu badaiteke), horiek guztiak sustatu beharreko portaerak dira eta aparteko onurak (indultu partikularra barne) emateko baloratu beharrekoak. Ez dute izan behar, ordea, nahitaezko eran eta modu baldintzatuan exijitu beharreko elementuak, eta hori egiten ez bada erdi-askatasuneko erregimenak eskuratzeko aukera blokea daiteke. Beraz, biktimak zigorra betetzeko fasean pertsonatu ahal izateko aukera izatea, presoak graduari aurrera egiteari dagokionez, erabakiak aurkaratzeko ahalmenarekin, hori gizarte-eskubidean onargarria ez den interferentziatzat jo beharko litzateke.

C Blokea. Laburpen gisa: amaierako proposamena

2.10. ERREFORMA, BERRINTERPRETAZIOA ETA AMAIERAKO GOGOETA

1. De lege ferenda. Birgizarteratze indibidualizatuaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei azken ondorioetaraino lehenetasuna ematea kontuan hartuz gero, legegintzako erreformaren bidez, Espainiako espetxeko legegintzaren alderdi batzuk aldatu beharko lirateke; izan ere, alderdi horietako batzuk zigorrrak «erabat betetzeko eta modu efektiboan betetzeko» 7/2003 Lege Organikoan sartu ziren. Zehazki, segurtasun-aldiari buruzko erregulazioa malgutu beharko litzateke, batzuetan, aldi horrek iraupen aski luzea baitu eta laburtzeko eta, orokorrean, aldi horren aplikazioak hautazkoa izan beharko luke (derri-gorrezkoa izan beharrean). Horrela, aldi hori aldatzeko aukera egongo da, arriskugarritasun kriminalaren pronostikoaren bilakaeraren baitan. Edonola ere, 15 urtetik gorako nahitaezko segurtasun-aldiak ez dira onargarriak, ezta 30 urtetik gorako espetxealdia duten gehieneko zigorrak ere.

Ildo horri jarraiki, bai erantzukizun zibilaren bai erakundea uzteko eta lankidetzan aritzeko baldintzen erregulazioak, baita horiek egiaztatzeko modu tasatuak ere, ezaugarri komun bat izan beharko lukete: presoak indarkeria utzi duela eta delituaz baliatzeko aukerari uko egin diola egiaztatzea; horrela, gizartean birgizarteratzeko egoeran egongo litzateke, askatasunean, bizitza arduratsua egiteko, talde terroristatik bereizita dagoen eta helburu politikoak lortzeko bide kriminalak erabiltzeko talde terroristaren programatik bereizita dagoen bizitza egiteko. Etorkizunean indarkeria uztetik eta, zentzu hertsian, erakundetik bereiztetik harago dagoen oro: esaterako, barkamena berariaz eskatzeko jarrerak, damutzea, egindako kaltea onartzea, erantzukizun zibilak betetzearen aldeko jarrera izatea, agintariekin modu aktiboan lankidetzan aritzea, etab. Alderdi horiek guztiak birgizarteratze-prozesu indibidualizatuan sustatu beharko lirateke, baina ez bortxazko eran eta graduari aurrera egite hori blokeatuko dela adierazten duten legezko mehatxuen pean. Legezko bortxakeria horrek birgizarteratzea birgaitze behartu eta intrusibo bihurtzen du, baita presoaren oinarriko eskubideak zatikatzen dituen birgaitze ere.

Ildo horri jarraiki, urruntzeko eta lehen graduari sailkatzeko politika sistematikoak utzi beharko lirateke eta, halakorik bada, politika horiek neurri indibidual bihurtu beharko lirateke. Eta neurri indibidual horiek barneko arriskugarritasun eta/edo kanpoko arriskugarritasun ziurtatuaren baitan justifikatuko lirateke. Horrelako politikak mantenduta Giza Eskubideen Aldeko Europar Konbentzioaren doktrina urratzen da.

Legezko erreformek Espainiako espetxeko eredia eta horren interpretazioa, Europako Kontseiluko geografia-eskualdearen barnean, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean indartzen ari den adostasunera moldatuko lukete. Erreforma horiek, era berean, azaldutako printzipio-arrazoietatik (birgizarteratzearen eta diskriminazio ezaren printzipioa) harago, balioko lukete ETArek desagertze-prozesuan eta behin betiko deuseztatze-prozesuan trantsizio-justizia proaktiboaren proposamen gisa eta, horrela, Zuzenbidea 2011. urtearen amaiera aldera, indarkeria behin betiko uzteko egindako deklarazioak ekarri duen egoera berrira egokituko litzateke.

2. De lege lata. Legegintzako erreforma bat egin beharrean, erreforma horren helburu berdinak (birgizarteratzearen eta diskriminazio ezaren printzipioak azken ondorioetaraino onartzea) presoaren aldeko interpretazio baten bidez lortu beharko lirateke; hala, interpretazio horrek espetxe-betearazpenaren eredu malgua erabili beharko luke, hasiera-hasieratik sailkapen jakin bat ezarri ordez (EPko 100.2 art.). Bide horrek balioko luke segurtasun-aldiak nahiz gehiegizko gutxienekoak moldatzeko eta horiek egiaztatzeko baldintzen nahiz moduen multzoa birgizarteratze-prozesua, modu efektiboan blokeatzen duten oztopoen pilaketa batera bideratzen dela ziurtatu beharrean, zentzu hertsian, erakundetik preso bereizi dela eta erakundea modu efektiboan nahiz indibidualean utzi duela ziurtatzen eta sustatzen duen bide batera bideratzen dela ziurtatzeko. Era berean, urruntze-politikaren edo lehen graduari sailkatzeko politika *de facto* desaktibatuta beharko litzateke.

Interpretazio horrek bateragarria izan behar du guneen biderkatzearekin, espetxearen esparruan, biktimaren aldeko jarrerak eta jarrera prosozialek (barkamena eskatzea, damutzea, egindako kaltea onartzea, erantzukizun zibila betetzea, justizia konponarazlea, bitartekaritzak, etab.), era berean, hedatzeko aukera izan dezaten. Horrelako jarrerak positiboak dira eta horiek gauzatzeko eta sustatzeko, espetxe-onurak ere ezarri beharko lirateke; izan ere, horiek (gaur egun) legeak debekatu egiten dizkie delitu terroristak dituzten presoek (indultu partikularra izan ezik). Espetxean aldi jakin batez egotea eta erakundetik bereiztea birgizarteratze-prozesuaren oinarriak dira, presoak graduari aurrera egiteari begira: alor hori sari-mekanismo gehigarriak ezartzeko irekia egoteaz gain.

3. Amaierako gogoeta: Zuzenbidearen ordua

Erakunde gisa ETAk eta bertako kideek espetxe-politikaren aurrean, denbora aski luzean, alor hori erabili dute Estatuari aurre egiteko borroka politiko gisa. Logika horrek ere, alboko ondorio gisa, bide judizialaren bidez, eskubideak gauzatzeko aukerak baztertu ditu, baita, horrela, espetxean hartutako erabakiei modu egokian aurre egin ahal izatea ere. ETAko terrorismo-delituengatik preso dauden presoek pasibotasun juridiko efektiboa dela eta, Zuzenbideari ez zaio aukerarik eman eta, batez ere, gai honi dagokionez, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean indartzen ari den zuzenbideari, hedatzeko eta espetxeko legegintzarekin eta bere aplikazioarekin erkatzeko. Aipatutako preso gehienen ordezkariak presoek espetxeko legegintza onartuko dutela adierazteak etapa berri bat ireki beharko luke. Gatazkak konpontzeko Zuzenbidea mekanismo gisa erabiltzeko ordua da eta horrek Europako espetxeko zuzenbideko adostasun eztabaida ezina den birgizartratze-printzipiotik eratoritzen diren helburuez bestelakoetarako, espetxe-politika erabiltzeko tentazioa desagerrarazi beharko luke.

ERANSKINAK

1. **eranskina** Aurretiatzko txostena (J.M. Landa –koordinatzailea–; J. Echano, X. Etxebarria, E. Garro).
2. **eranskina** Comments on the Report on the current state of penitentiary law and its application to crimes of terrorism by ETA (F. Dünkel, T. Lappi-Seppälä, L. Lazarus).
3. **eranskina** Aurretiatzko txostenari buruzko iruzkinak (J.M. Gómez-Benitez).
4. **eranskina** *Comentarios en relación con la situación penitenciaria de miembros de ETA. Perspectiva comparativa* (A. Gogorza).